

IMMIGRAZIOA. Elkartasunaren alde esperientzia herritarra Iruñean

JOXE LACALLE

Arrazakeriaren aurkako txertaketa

Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako auzo txertaketa burutu zuten atzo Iruñeko Sanduzelai auzoan, bertako taldeen koordinakundeak antolatuta. Goizean zehar, eta auzoko gune garrantzitsuenetan jarritako mahaietan, hainbat lagunek galdera sorta luzatu zizkieten auzoei, itaunka arrazakeriarekin eta xenofobiarekin lotutako

gaien inguruan. Ondoren, txertatu egin zituzten, sinbolikoki beti ere, eta gaitza ez hartzeko hainbat gomendio biltzen zituen eskuliburua banatu zituzten. Berrogei bat lagun aritu ziren orotara auzoan zehar, eta atzoko lehen datuen arabera, oso emaitza positiboa jaso zuen ekimenak: mila lagun inguruk erantzun zituzten galderak.

HOMOFobia SALAKETA. Kasua auzitara eramateko asmoa du Gehituk

Gay bati dantzaleku batera sartzea debekatu diote

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal Herriko gay eta lesbien elkartek (Gehitu) salatu duenez, Donostiako Keops dantzalekuak sartzea debekatu zion pertsona homosexuala zela arrazoitzat hartuta. Gertarak iragan apirilaren 7an izan ziren. Jose Inazio Larraeta, beste hainbat lagunekin batera, aipatu dantzalekura sartzera zihoala, ateko zaindaria esan zion ezin zela sartu. Larraetak jakinarazi zuenez, dantzalekuko jabeek «pistan marikoirik» ez zutela ikusi nahi esan zion zaindaria. Larraeta Keops dantzalekuko ohiko bezeroa da eta orain artean ez zuen inolako arazorik izan bertan sartzeko.

Gertatutakoa ezagutarazi, salatu eta hurrengo egunetan egitekoak dituzten ekimenen berri emateko, prentsurrekoa eskaini zuen Gehituk atzo, Jose Inazio Larraetaekin batera. Iñigo Lamarka aipatu elkarteko presidentearen arabera, «lotsagarria eta salagarria da homofobia beste kasu hau». Oinarritzko giza eskubideak urratzeaz gain, Keops dantzalekuak Espainiako kode penaleko 512 artikulua urratu duela azpimarratu zuen.

ESKAERAK**Gehituren ekintzak**

Euskal Herriko gay eta lesbianen elkartek honako lau eskaerak egingo ditu.

SALAKETA. Gertatutakoa epaitegietara eramango du.

ZUZENKETA. Keops dantzalekuari bere portaera publikoki zuzendu dezala exijituko dio.

ZIGORRA. Donostiako Udalari eskatuko diote dantzalekuari espedientea zabaltzeko.

BITARTEKOAK. Era berean, hiriburuko udal Administrazioari bitarteko eraginkorrak eskatuko dizkio elkartek, gaueko aisia kudeatzen duten lokaletan horrelako diskriminaziorik berriro gerta ez dadin.

Hori dela eta, salaketa aurkeztuko du Gehituk epaitegietan. Era berean, Donostiako Udaleko Legalitate Urbanisti-

koko zinegotziari —PPko Maria Jose Usandizagak du kargu hori— elkarriketa bat eskatuko diote, Udalak horrelako gertarak errepika ez daitezen bitartekoak jar ditzan. Epaileek eta administrazioek «deus egin ez badute», bi erakunde horien jarrera salatuko dutela jakinarazi zuen Iñigo Lamarkak.

Duintasuna zapaldu diotela salatu du Larraetak

Jose Inazio Larraetak ere parte hartu zuen atzoko prentsurrekoan. Gertatutakoak lur jota utzi zuela azpimarratu zuen: «Inoiz ez naiz horren gaizki sentitu. Nire duintasuna zapalduta ikusi nuen. Ez zen Keopsera joaten nintzen aurreneko aldia, 'ongi' jantzita nengoen eta eza-gunak nituen bertakoak», salatu zuen Larraetak.

Gertatutakoak badu beste irakurketa bat Iñigo Lamarkaren aburuz: «Orain urte batzuk homosexualak euren klubetan ibiltzen ziren, baina azken urteetan leku gehiagotara zabaldu dira. Zenbait ostalari izutu egin da homosexualen presentziak heterosexualak tabernatik joatera bidera ditzakeelakoan», esan zuen.

IRAKASUNTZA. Ikas-Birekin bildu zen atzo

Hezkuntza ministroak irakaskuntza elebidunerako arau berriak aurkeztuko ditu

Erredakzioa | BAIONA

Jack Lang Frantziako Hezkuntza ministroa Ikas-Biko eta FLAREP (Irakaskuntza publikoko eskualde hizkuntzen federakuntza) federazioako ordezkariekin bildu zen atzo, Parisen. Jack Langek «ondoko egunetan eskualde hizkuntzen irakaskuntzaren aldeko arau berriak publikoki aurkeztuko» dituela jakinarazi zuen atzo Thierry Delobel Ikas-Biko lehendakariak bilkuratik ateratzean.

Oren kopuru bereko irakaskuntza elebidunaren antolaketari dagokionez, ministroak xutik ezartzeko neurriak zehaztu ditu. Hots, «irakaskuntza publikoak familien informazioan, irakasleen formakuntzan eta ikasleen ebaluaketan bere papeira eta sinesgarritasuna azkartuko» ditu, Delobelek jakitera eman zuenaren ar-

bera. Frantsesa eta hizkuntza gutxituaren arteko oren kopuru bereko irakaskuntza kolegioetara ere zabaltzeko asmoa du ministeritzak.

«Zerbitzu publikoak murgiltze eredua proposatuko du, hizkuntza gutxituaren menperatze fase intentsiboa eta aldi berean, bertze ikasleek bezalako frantsesaren ezagutza segurtatuz.»

Jack Langek iragarri zuen, horrez gain, 2001eko irailetik landa formakuntza berezi bat eta irakasleen kontratatze lehiaketa berezi bat antolatuko direla irakaskuntza elebiduneko irakasleentzat.

FLAREPeko ordezkariak azpimarratu dute lehen aldia dela Hezkuntza Ministerioak horrelako ordezkartzat bat jasotzen duena. Arau berri horien «garrantzia aho batez goraiatu» zuten, «Hezkuntza Nazionalaren idekiduraren borondatea markatzen» baitu.

ONGIZATEA. Eskaera egingo du batzarretan


Gipuzkoan gizarte zerbitzuak finantzatzeko fondo bat nahi du EHk

Erredakzioa | DONOSTIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte zerbitzuen banaketarako onartutako dekretuaz balorazioa egin zuen atzo EHk. Karnele Aierbe batzar-kideak adierazi zuenez, dekretuak «hutsune eta puntu ilun asko» ditu. Ildo horretan, EHk Batzar Nagusietan arauzko proposamen bat aurkeztuko duela azaldu zuen, gizarte zerbitzuak finantzatzeko fondo bat sortzeko eskatuz. Fondo lau milioi pezetakoa izatea nahi du EHk. Fondoaren bidez,

udalen oinarritzko gizarte zerbitzuen finantzazioa ziurtatuko da. Fondoaren banaketa bi irizpideren arabera banatzea proposatuko du EHk: %80a biztanle kopuruaren arabera, eta %20a herrien gizarte egoeraren arabera.

Airbek atzo adierazi zuenez, Aldundiak onartutako dekretuak eskuduntzak udalen eta aldundiaren artean banatzen dituen arren, ez da kontuan izan udalen iritzia. «Non geratzen da udalen subiranotasuna edo autonomia?», galdegin zuen.



USURBILGO UDALA



LANPOSTUA: Aldi baterako. Bi Lorazain laguntzaile, bat zazpi hilabeterako eta bestea lanpostu finkoa bete bitartekoa.

ESKAERA AURKEZTEKO EPEA: 2001eko maiatzaren 3a, eguerdiko ordubiak bitartean.

OINARRIAK ETA ESKAERAK: Udal bulegoetan.

Usurbilen, 2001eko apirilaren 18a.

ALKATEA.